



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
udala@arantza.eus
www.arantza.eus

OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Organoa: Udalbatza
Deialdia: Lehenengoa
Bilera mota: Ohikoa
Eguna: 2021.06.22
Ordua: 19:00tan
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

- Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.

Bertaratu ez direnak: Inor ere ez.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIAK:

1. AURREKO AKTAREN ONESPENA

2021/05/13ko akta aho batez onartzen da.

2. PELLE TTIKI HAUR ESKOLAKO ZERBITZU KONTRATUAREN ESLEIPENA.

Idazkariak Pelle Ttiki haur eskolako zerbitzu kontratuaren lizitazioaren berri ematen du. Honi dagokionez, aipatzekoa da borts enpresa ezberdinei gonbidapena bidali zela esleipen lizitazioan parte hartu zezaten. Hasiera batean lizitazioan parte hartzeko deialdia ekainaren 2an bukatzen zen, baina ikusirik gonbidatutako enpresek ez zutela eskaintzarik aurkezten, eskaintzak aurkezteko epea ekainaren 7a arte luzatzea erabaki zuen Udalak.

Horrela bada, azkenean Magalako Ttikiak, S.L. enpresa bakarrik aurkeztu da lizitaziora. Aurkezturiko hezkuntza proiektu plana eta kontingentzia planaz gain, langileen lan baldintza hobekuntza eta eskaintza ekonomiko zein ordezkapen kostuaren eskaintzak aztertu ditu Udalak. Eskaintza ekonomikoari dagokionez, honako hau 24.000,00€koa izan da, eta ordezkapen bat egin behar izatekotan honen gehiengo kostua 5.500,00€koa izanen zen.

Halaber, idazkariak azaltzen du ez dela bete Kontratu Publikoei buruzko 1/2018 Foru Legearen 80. artikuluan zehazten den gutxiengo 2 eskaintza ezberdin aurkeztu izana, izan ere, gonbidatutako 5 enpresetatik 2k behintzat eskaintza ekonomikoak aurkeztu beharrak zituzten. Dena dela, artikulua beraren 5. puntuari xedaturikoa betetzen dela ikusirik, bideragarria ikusten du Pelle Ttiki haur eskolako zerbitzu kontratua Magalako Ttikiak, S.L., enpresari esleitzea:

“5. Kontratazio-organoak eskatutako eskaintzetatik gutxienez bi lortzen ez baditu, eskaintza gehigarri bat lortzen saiatu beharko du. Lortzen ez badu edo beste gonbidapen bat edo batzuk egitea ezinezkoa dela ulertzen badu, arrazoiak justifikatu beharko ditu.”

Izan ere, hasiera batean, Udalak, eskaintza ekonomikoak aurkez zitezten, eskaintzak aurkezteko epea luzatu zuen. Era berean, etengabe bidali zaizkie mezu elektronikoak gonbidatutako enpresei lizitazioaren berritasun guztien berri emateko, parte-hartze handiagoa lortzekotan, baina ez da lortu Magalako Ttikiak, S.L. enpresak aurkeztutakoa baino parte-hartze handiagorik.

Osoko Bilkurak honen inguruan hausnartzen du, izan ere, Pelle Ttikiko haur eskolako zerbitzu kontratua ahalik eta lasterren sinatzearen premiaz jakitun dira, kurtso berria irailean hasten baita eta tartean udako oporrak daude.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- Pelle Ttiki haur eskolako zerbitzu kontratua Magalako Ttikiak, S.L. enpresari behin behinean esleitzea, 24.000,00€tan B.E.Z.a barne, urte bateko kontratua izanik, 5 urtetara luzagarria.
- 2.- Magalako Ttikiak, S.L. enpresari erabaki honen berri ematea, jakinarazpena jaso eta 7 eguneko epean pleguko 17. eta 18. oinarrietan zehazturiko bermea eta dokumentazioa aurkeztu dezaten.
- 3.- Aurreko puntuari aipaturiko epean aurkeztu beharreko bermea eta dokumentazioa aurkeztuz gero, Magalako Ttikiak, S.L. enpresari behin betiko esleitzea Pelle Ttiki haur eskolako zerbitzu kontratua.

3. 2/2021 ETA 3/2021 AURREKONTU ALDAKETA.

Idazkari - kontu hartzaileak Arantzako Udaleko aurrekontuan egin beharreko aldaketen berri ematen du, izan ere, hasiera batean ez zegoen aurreikusita Pelle Ttiki haur eskola irekitzea, baina azkenean proiektua aurrera atera da. Hau horrela izanik, 2021/2022ko ikasturterako osoko gastua

24.000,00€koa izanen zen (B.E.Z.a barne) eta honi langilearen bajarengatik, hala sortatzen bada, ordaindu beharreko gehiengo kopurua gehitu beharko litzaioke, hau da, 5.500,00€.

Era berean aipatzen du haur eskolako ikasleen aurrematrikulak ikusirik eta aipaturiko ikasturtean gurasoek ordaindu beharreko kuotak kontuan harturik, 11.000,00€ko dirusarrera bat izanen zela haur eskola kudeatu ahal izateko.

Beraz, guztira 29.500,00€ko gastu bat izanen zen eta 11.000,00€ko sarrera bat. Horrela bada, bi aurrekontu aldaketa egin beharko lirateke:

- 2/2021 aurrekontu aldaketa, diru-sarreraren kredituak sortzea dakarrena. Honako hau, exekuzio oinarrien 13. oinarrian xedaturikoa jarraituz gauzatuko litzateke, horretarako Osoko Bilkuraren onespena nahikoa izanik. Horrela bada, "Haur eskola kuota" 1 31220 sarrera partidan 11.000,00€ko gehikuntza bat egingen zen eta "Haur eskola kudeaketa" 1 3231 22799 partidan 11.000,00€ko gastu bat gehitu.
- 3/2021 aurrekontu aldaketa, kreditu bereziak. Aurrekoarekin jarraituz, oraindik 18.500,00€ko kreditua faltako litzateke 29.500,00€ko gastu guztia finantzatu ahal izateko. Horrela bada, exekuzio oinarrien 10. oinarrian xedaturikoa jarraituz, diruzaintzako gerakin likidotik 18.500,00€ hartuko ziren, horretarako Osoko Bilkuraren onespena eta Udaleko iragarki taulan 15 egun naturalez jendaurrean jartzea aski izanik. Honela, sarrera partidan "Diruzaintzako gerakina 2/2021" izenarekin 18.500,00€ko sarrera bat egingen da diruzaintzako gerakin likidotik, ondotik kopuru hori bera "Haur eskola kudeaketa" 1 3231 22799 partidan gastu gisa gehitzeko. Dena dela, kasu honetan, diruzaintzako gerakinetik finantzatu ahal izateko, alde aurretik 2020ko kontuak likidatu beharko lirateke.

Dena dela, erran beharra da 29.500,00€ko gehiengo gastu hau 2021-2022 ikasturteari dagokiola eta Udalak aurrekontuak 2021eko ekitaldian itxizten dituela. Beraz, 2022ko gastuari dagokion zatia 2021eko aurrekontutik afektatua utzi beharko zen, horrela, ikasturteko bigarren aldira bideratu ahal izateko.

Osoko Bilkurak hau jakinik eta aurrekontuan aldaketa egiteko premia ikusirik, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- Aipaturiko 2/2021 eta 3/2021 aurrekontu aldaketei onespena ematea.
- 2.- Akordio hau Arantzako Udalaren iragarki taulan argitaratzea, 15 egun naturalez.

4. PUTZU BELTZERAKO PASABIDEEN ERREGULAZIO ORDENANTZA.

Alkateak Putzu Beltzera doan bideen pasabideak mugatzearen inguruko ordenantzaren berri ematen du. Honi dagokionez, aipatzen du Putzu Beltzerako bidean izaten diren ibilgailu motordunen pilaketak saihesteko pentsatua dagoela ordenantza hau, izan ere, denborarekin ur-jauzira doazen turisten kopuruak gora egin du. Hau horrela izanik, turismo-jasangarriagoa lortzeko

nahiarekin, ibilgailu motordunen pasabideak mugatzeko baldintzak ezartzen dituen ordenantza bat osatu du.

Osoko Bilkurak aipaturiko Ordenantzaren inguruan eztabaidatzen du, izan ere, zenbait puntu hobekiago zehaztu beharrak ikusi dituzte.

Idazkariak aipatzen du Putzu Beltzerako pasabideen erregulazio ordenantza kudeatzeko Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeko 325. artikuluan xedaturikoa jarraitu beharko dela. Era berean, ordenantzan ezarritakoa ez betetzearen isuna Nafarroako Toki-Ogasunei buruzko 1/1995 Foru Legearen 52. artikuluan xedatutakoaren arabera kudeatu beharko dela azaltzen du.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- Putzu Beltzerako pasabidearen erregulazio ordenantzari hasierako onespina ematea.

2.- Arantzako Putzu Beltzerako pasabideen erregulazio ordenantzaren hasierako onespina Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki taulan argitaratzea 30 egunez, bizilagun eta interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten. Aipaturiko epean alegaziorik aurkeztu ezean, behin betiko onartuko da ordenantza.

5. ARANTZAKO UDALAREN 5. POLIGONOKO 987. LURZATIA ETA LEIZA MITXELENA SENIDEEN 5. POLIGONOKO 974. LURZATI TRUKAKETAREN ONESPENA.

Idazkariak azaltzen du 2018ko uztailaren 23an Leiza Mitxelena senideak Arantzako Udalarekin 5. poligonoko 974. lurzatia 862. lurzatiarekin mugakide den bide publikoaren zati batekin trukatzeko akordio pribatua hartu zuela. Hau horrela izanik, bide publikoko zati horren desafezkio eta kalifikazio juridiko aldaketa gauzatu dela aipatzen du idazkariak, honela Arantzako Udalaren ondare-ondasun den 987. lurzatia sortuz. Orain, aurreko guztia gauzatu ostean, Arantzako Udalaren 5. poligonoko 987. lurzatia Leiza Mitxelena senideen 5. poligonoko 974. lurzatiarekin trukatu ahal izanen zen.

Aurreko guztia ikusirik, trukaketa gauzatu ahal izateko, Nafarroako toki-erakundeen ondasunen erregelamendua onartzen duen urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 129., 130. eta 131. artikuluetan xedaturikoa jarraitu beharko zen.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, LEGEZKO KIDE KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

1.- Arantzako Udalaren 5. poligonoko 987. lurzatia Leiza Mitxelena senideen 5. poligonoko 974. lurzatiarekin trukatzeko onespina ematea.

2.- Trukaketa honen iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki taulan argitaratzea 15 egunez, bizilagun eta interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa

edo oharrak aurkez ditzaten. Aipaturiko epean alegaziorik aurkeztu ezean, behin betiko onartuko da trukaketa.

6. ARANTZAKO FRONTOIAN EGUZKI PLAKAK PARATZEKO PLEGUAREN ONESPENA.

Idazkariak Nafarkoop, S.C. enpresak prestaturiko proiektu eta pleguen berri ematen du. Honi dagokionez, lizitazioarekin jarraitu ahal izateko Udalak zenbait puntu adostu eta proiektu zein pleguak onetsi beharko dituela azaltzen du.

Honen harira, idazkariak ondorengo proposatzen du:

1. Lizitazioa prozedimendu ireki bidez egitea, Kontratu Publikoei buruzko 1/2018 Foru Legearen 72. artikuluan xedatutakoaren arabera.
2. Proposamenak aurkezteko epea 10 egun balioduneko izatea, Nafarkoop, S.C. enpresak gomendatutakoa kontuan izanik.
3. Lizitazio eta kontratazioaren kostu ekonomikoa 25.940,80€ (B.E.Z. kanpo) ezartzea, Nafarkoop, S.C. enpresak aurkezturiko proiektuaren arabera.
4. Kontratazio mahaian ondorengo pertsonak egotea:
 - Arantzako Udaleko alkatea eta honen ordezkoa.
 - Arantzako Udaleko arkitektoa eta honen ordezkoa.
 - Nafarkoop, S.C. enpresak hala deritzon teknikaria eta honen ordezkoa.
 - Arantzako Udaleko idazkaria.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- Nafarkoop, S.C. enpresak prestaturiko proiektu eta pleguei onespena ematea idazkariak aipaturiko zehaztapen berdinekin.

2.- Lizitazio prozesu irekia Nafarroako Kontratuen eta Lizitazio Portalean argitaratzeaz gain, enpresa ezberdinei korreo elektronikoz jakinaraztea horrela enpresen parte-hartzea bultzatzeko.

- **Beñat Mitxelena Danboriena jauna Osoko Bilkuratik ateratzen da.**

7. EKAINAK 28KO LGTBI ADIERAZPENA.

Alkateak EH Bildutik bidalitako ekainak 28ko adierazpenaren berri ematen du.

Honen inguruan LGTBI pertsonen aurkako diskriminazioa saihestu eta hauen eskubideak bermatzearen garrantziaz eztabaidatzen du Udalbatzak.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- Ekainaren 28ko LGTB harrotasunaren nazioarteko egunerako EH Bilduren adierazpenera atxikitzea.

8. ALKATEAREN EBAZPENAK


60/2021-71/2021 arteko Ebazpenak berretsi egiten dira.

9. ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez dira egiten.

Beste aztergairik izan gabe, 21:00ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.


ALKATEA,



Dabid Iturria Almandoz



IDAZKARIA,



Nagore Madariaga Iriarte